



PATXI ETXEBERRIA
(1900-1989)

Egilea:

ELIXABETE GARMENDIA

Gizon erdibitu baten aurrean gaude. Zinez euskaltzalea eta abertzalea izanik, eta jakinda Euskal Herrian bazuela lanik aski, Txinan eta Filipinetan igaro zuen bizitza ia osoa, misiolaritzan. Hona itzuli zenean, 87 urterekin, desgaraian aurkitu zen, eta ez zitzaion batere atsegin gertatu euskal giroa. Idazmakinan oraindik papera jarrita zeukala topatu zuten hilda bere logelan, Loiolan. «Eguna bezain laister / Urteak amaitu...» zioen bertso haietan, nahiz eta laurogeita hamargarren urtera zihoan hori idaztean. Xabierko San Frantziskoren eguna zen hura, seinalatua inondik ere jesuita batentzat. Beretzat, areago, Euskararen Eguna zen, erbestean ere beti gogoan izaten zuena. Euskalaritzara bere idatzi propioengatik baino gehiago pasa da beste lan mota batzuegatik: *Argiako* zuzendari izateagatik tarte labur batean eta, batez ere, Olabideren Biblia argitaratzeko egindako prestaketarengatik. Hori burutu eta gero euskaltzain izendatu zuten. Hamabi hizkuntza *lardatzera* iritsi zen, tokian tokikoa egin behar zela sinesten baitzuen bene-benetan. Baina amets, ama hizkuntzan egiten zuen erbesterik urrunenean ere.

ANDOAINGO BASERRITARRA

Andoaingo *Merdilegi* baserrian jaio zen Jose Frantzisko Etxeberria –Praixku etxe koentzat–, 1900eko apirilaren 23an. *Merdilegi* Goiburu auzoan dago; izenak adierazten duen bezala, mendi auzoa da hau, San Estebanen baselizaren inguruan dozena eta erdi bat baserri biltzen dituena. Gorantz begiratzuz gero, Aizkorri Txiki, Onddi, Adarra eta Belabiko gainak bistan. Behean



Patxi Etxeberria (1900-1989)

geratzen dira herri kaskoa eta Sorabila, auzo koskorra. Bi etxebizitza ditu *Merdilegik*, Nagusi Etxea, eta garai batean haren borda izango zena, gerora handitu eta bizitzatarako birmoldatua.

Hamaika senideren artean zaharrena zen Patxi Etxeberria. Bere atzetik etorriko ziren Luzia, Martin, Juan Mari, Joxe Inixio –gerra garaian Artxandan hila–, Rafaelatxo –umetan hila–, Erramona, Ixabel, Bartolo –jaiotzan hila–, Benita eta Prontxio. Familia handia *Merdilegin* maizter ziren guraso haientzat. Ama zen bertakoa, Maria Bautista Tolosa Zumalakarregi. Aita berriz, Higinio Etxeberria, Altzagakoa. «Gure aita, gure amaren etxera etorri zen, Altzagatik Andoainera. Orduan gure ama neska bakarrik etxean gelditu gure amona izango zenarekin. Eta baserriko lanak gure amak bakarrik ezin egin. Han bertan mutil gazteak izango ziren, noski, baina gure ama Goierrira joan zitzaigun. Adinean zazpi urte gazteagoa gure ama eta itundu ziren. Horrela, gure ama bere etxean eta gure aita hartu zutenen sendian. Aitak baino agintetza haundiagoa zuen etxean gure amak». Amaz gain, amona etxean. Elduaiendik senarra hartuta etorria *Merdilegira*, emakume zaildua, Zumalakarregi abizenari ohore egiten ziona inondik ere. «Hura, Mikelantoni,



Merdilegi, bi bizitzako baserria: ezkerrekoa, *Nagusi Etxea*; eskuinekoa, *Etxe Beltza*, Etxeberriatarrena.

emakume zuzena zen. Bai horixe, eta guk senide guztiok zuzen ibili behar izaten genuen». Horixe etxeko giroa, bi emakumezko gartsuk gobernatua. *Merdilegiko* familia horretan bilatzen ditu bere sustraiak zahartzaroan ere Patxi Etxeberriak, 1974an Taiwanetik idatzitako gutun honetan dioen bezala:

Neroni nondik irtena ote naiz? Nere amaxok esaten zizkidanak alperrik al ziren? Eta, nere ama aldeko osaba zenak hain bertso abeslari eder baziren, ez al zen haiengandikorik nireganaino iritsi? Ezik damurik osaba haiek Andoaingo jaiotetxea utzi egin zutela... Zaharrena Kuban hil zen, gudumutil morrontzara eraman zutelarik. Eta beste bi osabak Argentinan ahitu zitzaizkigun... hantxe, Tucumango bazter kiskalietan.



Amona, Mikelantoni Zumalakarregi, bere seme-alabekin. Eskuinetara daukan lehena, Maria Bautista, Patxiren ama.

FILARMONIKA SENDAGAI

Txikitan gaixotasunak harrapatu zuen Patxi Etxeberria. «Gaixoaldia luze izango zen nolnahi ere, eta ni ikustera bat joaten zen aldamenekoa, beste etxekoa, gizon haundia, eta hark esaten zidan: *sendatzen haizenean, ezpainetako filarmonika ekarriko diat*. Gaur arte. Eta ni sendatu egin nintzen; nik uste horren pozez ez nintzela okertu». Musikazaletasuna pizturik zuen nonbait ordurako Patxi Etxeberriak. Gaixoaldian oinez ibiltzen ere ahaztu egin zitzaion, eta amona Mikelantoniri eskutik helduta ikasi omen zuen berriro. Nolanahi ere, buruz ez zen makal atera eritasunetik: «Gaixotasun hori izan nuelako, nere amak eskaintzaren bat egin ote zuen... nik berehalaxe ikasten nituen eskolako gauzak, berehalaxe, batere nekerik gabe».

Herrian egin zituen lehen ikasketak Etxeberriak. Lehendabizi Sorabilako elizpean eta gero Keperin Ansa alkateak sortutako eskolan. Hamasei urterekin Seminariora jo zuen, herrian bertan. «Andoainen bazen Seminarioa latinerako; Ustoa jauna zen zuzendari. Egun hori irailaren 16a zela uste dut. Aita eta ni garoa ebakitzeira joan ginen, eta han ari ginela nere arreba Erramona joan zen berria ematera: *aizak, Frantzisko, Seminariora joateko*.



Filarmonikaren pozetan sendatu zena 1971ko abenduaren 31n, eskusoinua jotzen.

4

Ordurako eskainiak eta egin zituzten etxekoek eta joateko. Eta ni etxera etorri nintzen, zerbait hartuko nuen, maindireak edo lo egiteko, eta joan nintzen». Seminario horretan *famulo* edo morroi modura egon zen Etxeberria, alegia, lana eginez ordaintzen zituela ikasketak; horrela latinekoak osatu zituen arte.

Gasteizko Seminariorako pausoa hurrena. Oroitzapenean, Andra Mari Zuriaren jaiak bete-betean zirela, abuztuaren 5 edo 6an, 1919an. «Seminarioan ni giltzazain nintzen, Azpiazu zenak egin ninduen. Azpiazu hori zen erretore, eta ni joan nintzenean, ez dakit ba mutil polita nintzen edo, niganako izugarrizko maitasuna agertzen zidan; eta euskalduna ere bai, ni orduan Lekuonarekin ibiltzen nintzen, bazekien...». Lekuona, sei urte zaharragoa, bide erakusle izan zuen Seminarioan: «1918garren urtean ikusi nuen lehenbizi. Lekuona oso euskalari egokia zela esan zidaten, eta harekin hizketan laister hasi ni: izan ere, ordurako euskal gogo izugarria neraman». Berehala aurkitu zuen lana Etxeberriak oiartzuarraren alboan, Dotrina berria euskaratzen ari zen taldeko kide modura.



Andoainen egin zituen lehen ikasketak, baita latinekoak ere, Patxi Etxeberriak.

Manuel Lekuona beraz lagun, eta irakasle berriz, matematiketako hain zuzen ere, Don Jose Migel Barandiaran. Hortxe beraz, beste

askorentzat bezala beretzat ere maisu, aitzindari eta lagun izango ziren pareta, Barandiaran eta Lekuona. Lehen bi urteetan filosofiako ikasketak egin, hurrengo hiruetan berriz teologiakoak, eta Etxeberria prest zen apaizteko. 1925eko abenduaren 19an eman zuen meza berria. Seminarioak herrilanerako gogoia piztua zion: «Apaiz ikasketak genituenean guk bai amets egiten genuela. Horixe!! Behin zerbait ginenean Euzkadi osoa zuzendu behar genuela esanez ibiltzen ginen. Izan ere, oker zeuden arazoak asko ziren».



Patxi Etxeberria, apaiztu berritan.

APAIZ BERRIA

Apaiztu eta Lalastrara bidali zuten, Araban, Burgosko mugan. «Herri horretan izugarrizko ezin etsiak izaten nituen, eta guztira lau hilabete eta hamaika egunez izan ninduten hangoek». Tarte laburra oso, berez arrotz zitzaion inguruan girotu ahal izateko. Aldiz, Goierriin pasa zituen hurrengo lau urteetan, han bai, erabat bertakotu zen. Agian Alzagako aitaren airea lagun, apaiz gazte eta lerden, euskaltzaletasunez zeriola, berehala aurkitu zuen han erein nahi zuen hazirako lur egokia. Baita betiko adiskideak egin ere.

Goierriko egonaldi hori bi tokitan banatzen da: bi urte pasatxo Itsason, eta urte eta erdia Ezkioko Santa Lutzia edo, berak nahiago zuen izena erabiliz, Anduan. Hortik joera handia hartu zuen Ormaiztegirako ere. Apaiz gazteak giro berria zekarren. Ez zuen ez ardorik edaten eta ez kartatan egiten; alkatea eta apaiz zaharra beste tankera



6

batekoak izan, harri eta zur apaiz berriarekin:

Uztailaren hamazazpigarrenean Itsasora iritsi nintzen. Handik laister Madalenak ziren. Areriko (Alegi, Itsasokoa) elizatxora etorri ginen, eta egun hartan meza neronek bakarrik abestu nuen. Ondoren bazkaria. Itsasoko alkateak eta hango beste jaunek apaiz berriari ongietorri berezia egin nahi. Otordutarakoan haiek mama beltza aukeran zerabilten eta neri ere eskaintzen zidaten. Ez nien hartu. Honetan alkate jaunak:

– Lan ederra egin zaigu! Apaiz gazteak ardorik ez duela nahi. Herriko zorrak estali ditzagun seinale txarra.

Jokozalea apaiza zen. Aurretik Itsason egondako lagun batek abisatu omen zion Etxeberriari:

– Aizak, Itsasoko apaiz jaun zaharrak itoko hau! Deika ez zaik isilduko kartetan hasi hadin.

Erantzun nion: Horra oraindik ikasi ez dudana. Zer diren ere, kartak, ez zekiat.

Eta halaxe gertatu. Itsasora heldu eta hamabost egun baino lehenago hasi zitzaidan kirika. Ni ezetzean. Eta apaiz jaun agurgarriarentzat hori izugarrizko arantza izan zela uste dut.



Itsasoko eliza.

MUSIKA, POESIA, ANTZERKIA

Patxi Etxeberriak beste zaletasun batzuk zituen, eta horiek zabaltzeko asmoa eta adorea. Laster bildu zuen inguruan taldea euskarazko poesia, kantak eta musika irakasteko. Hamar-hamalau urteko ume eta gaztetxoak, gero Euskal Jaietara eramaten zituenak, eta baita sariak irabazi ere eta aipamenak jaso egunkari eta aldizkari euskaltzaleetan. Esate baterako *Euskal Esnalea* aldizkariak, 1929an Andoainen ospatutako Lehen Euskal Haur Egunaren kronikan, Aiete eta Leitzako umeekin batera, Ezkiokoak nabarmentzen ditu, Patxi Etxeberriaren zuzendaritzapean aritutakoak. Horien artean hamabi urteko organojolea, Inazio Aldanondo.

Klaseak Anduako apaizetxean ematen zituen Etxeberriak, eta hara biltzen zitzaizkion ikasleak inguruko



Santa Luzia edo Andua, Ezkioko auzoa.



Ezkioko elizataria.



Anduako apaizetxea. Hor ematen zituen klaseak Patxi Etxeberriak.

herri eta auzoetatik. Orduan ez zen ikastolarik ez euskarazko ikasketarik Goierrin, eta hutsune hori betetzen zuen Etxeberriaren eskolaz kanpoko jarduerak. Handiagoekin berriz antzerki taldea osatu zuen Ormaiztegin. Entsaioak Irizartarren altzari tailerrean izaten ziren, familia horrenean baitzeukan sartuetxea Etxeberriak. Etxekoandrea, Doña Cándida Salazar, emakume jantzia, oso laguna zuen.

Oroitzapen gozoak utzi zizkion Goierriko egonaldiak Etxeberriari. San Martinetan Astigarretara mezetako hitzaldia egitera joan eta elurra mara-mara egin zueneko. Filipinetako lloiloko eguzki sarrerak ere Goierriraino darama: «Arratsaldeetan, sarreran eguzkiak erdi-hori erdi-nabar

bazterrak margotzen dizkigunean, hau bezalako txokorik inon izango ez dela iduritzen zait... Baina horrelako edertasunak Itsason nintzenean txoragarriri ikusten nituen, hantxe Mendeungo etxetik zuen aldera, Ormaiztegira, begira egoten nintzenean». Sasoi betean zegoeneko ibiliak: «Itsason izaten nintzen hartan, busti beldur haundi gabe, mendiz mendi hantxe joaten nintzen Ezkiora, Don Sinforosorekin hitzaspertua egitera. Hura etxean ez bazen... ni berriro Itsasora, bazterretako intzak bilduz. Haiek bai urte ederrak eta egun alaiak eta baztertxo atseginak».

Naturaren mireslea, ibiltari arin eta nekaezina, jendartekoa... halakoxea zen Anduako apaiz gaztea.



Ormaiztegiko antzerki taldea; erdian, eserita, Patxi Etxeberria.

LIBURURIK GABEKO IDAZLEA

Auskalo zenbat orri ez ote zituen bete eta hala ere, libururik gabeko idazlea dugu Patxi Etxeberria. Areago, bere lanak, onenera jota, aldizkarietan barreiatu daude, eta galduta ez dakigu beste zenbat idatzi, Txinan burututakoak batez ere. Beraz, ezagutzen duguna, lagintzat bakarrik hartu behar. Generoei dagokienez, artikulu eta bertso idazlea dugu batez ere, baina ipuinak, itzulpenak eta moldaketak ere egin zituen. *Euskal Esnalea*, *Argia*, *Euzko Gogoa*, *Karmel*, *Egan*, *Olerti*, *Jesusen Biotzaren Deya* eta *Zeruko Argian* kolaboratu zuen urteetan zehar. Bere izenez, nahiz izengoitiz sinatzen zuen, hala nola *Abelegiko Pi* edo *Ibiltari*.

Gazterik eta Seminarioko giroan hasi zen idazten. 1920ko Santo Tomasetan akzesit bat irabazi zuen Donostiako Elerti Batzaldian, «Erriko jayetana» izeneko ipuinarekin. Hogeita bost pezetako saria, garai hartarako diru mordoxka, Toribio Altzagaren eskutik jasota gainera. Hurrengo urtean «Urdinburuko Bittor» izeneko bakarrizketa argitaratu, eta urte horretatik 1930a bitartean *Euskal Esnalea* aldizkariko kolaboratzaile izan zen, «Irakatsi euskeraz» eta «Euskera nola ikasi?» idatziekin saridun gertatu eta gero. Aldizkari horretan bertan

argitaratuak, «Dirua biotz», «Euskera-gayak. Al, noiz?», «Euskeraren ugaritasuna», «Ortzia saritzat» olerkia, «Izkirimiriak», «Elustiza'tar Juan Bautista» eta klasiko baten itzulpena, Virgilioren «Eneis»-en hainbat bertso hain zuzen ere.

Curriculum hori izanik, ez da harrigarria 1929an, *Argia* astekaria zuzendaririk gabe geratu zenean, Patxi Etxeberriarengana jotzea ardura hori har zezan. Bitor Garitaonandia, ordura arte astekariko zuzendari izana hil berri zela, Aita Jorge Agirre jesuitak Patxi Etxeberriarekin topo egin Andoainen Larramendiri egin zitzaion



Euskal Esnalean ia hamar urtez kolaboratu zuen Etxeberriak.



Argia, aldizkaririk hedatuena gerra aurrean.

omenaldian eta horrela esan omen zion: «Aizak, aizak, etorri hona... Badakik, *Argian* zuzendaririk ez zegok, eta ibili dituk bila eta bila, eta hire izena agertu duk hor tartean, eta hik izan beharko duk».

Horrela ba, garaian bizkor eta garrantzitsuen zen euskal aldizkariaren zuzendari bihurtu zen Etxeberria. Berak morroi gisara dio: «Jabea beste

bat zen, Zatarain-dar Ambrosio jauna, *Niña de Oro* deitzen zioten Kubako emakume txiki batekin ezkondua». Ez zuen luzaro iraun ordea, 1930ean Jesusen Lagundian sartzeko bidea hartu baitzuen, eta horretarako Loiolara jo, uztailaren 15ean hain zuzen ere. Handik juxtu hiru urtera bere berri zabalduko zen euskal letren munduan.

LEITZARANGO LOREAK



Etxeberria saritu zuten urteko argitalpena.



Izan ere, 1933ko uztailaren 16an, Urretxun Iparragirreraren omenez ospatutako Olerki Egunean, Patxi Etxeberria gertatu zen garaile *Bost lore* izeneko poemarekin. Aitzol berak ez ustekotzat jo zuen Etxeberriaren garaipena: «Ez genekin olerkaria zenik. Bertso lanetan ez bait genuen behinere sumatu». Areago, auzitan jarri ziren nolabait *Bost lore*-ren merituak, Aitzolek berak aitortzen duenez: «*Bost lore* azaletik irakurri izateak guri ere halako ezbeharren bat egin ote zen iduritu zitzaigun. Baina zehatz eta astiro aztertu ondoren hamaika gauza sotil eta aratz arkitu ditugu». Hasierako irudipenak gaindituta, Aitzolek *Bost lore* euskal elertikera edo estetikaren eredutzat hartzen du, irakaspen hauxe ateraz:

Alegia, gorengo ertilariek gaurdaino taiutu ez duten erara eder-gaiak, antz-iduriak, eta amets ereduak, eusko kutsu jatorraz asma eta sor lezazketela, euskeldunen begiak ikusi eta beroien irudipenak arasi dituzten lege antzera eta ez atzerritar ertilariek erakutsi diguten gisara.

Honela bada, Etxeberriaren poemak euskal estetika propioaren aldarrikapena egiteko balio izan zion Aitzoli.

12

Bost lore idatzi zuenean Etxeberria jaioterritik urrundua zen, eta hasteko, herrimina darie bere bertsoei. Txikitan ezagututako parajeak, Leizaran eta Belabi, hartzen ditu abiapuntutzat:

Ene, Belabi-mendi!
Ezin nik zu aantzi!
Garagarril goiz batez
Eguras naiean,
Muñoz-muño nabilzu
Zure belarrean:
Leizaran egiz eder
Zure oin aurrean.
Txit mardul dago Izadi
Ain egal ezean.



Bost loreak honako hauek dira: *Mendiko lilia, Eskarne, Imanol, Irizar eta Aberria*. Aitzolek sumatu zion poemari batasun falta bost zatien artean, eta hala da; nahiz eta amaieran bost zatiak sorta bakarrean biltzeko ahalegina egin, atal bakoitza besteetatik aske eta bereizi gertatzen da, batez ere ez dagoelako parekotasunik zati bakoitzaren gai edo motiboan. Izatekotan, hori bai, Etxeberriaren ideologiaren bi ardatzek batzen dituzte atal eta bertso guztiak: kristau sinesmenak eta aberri minak.



JESUSEN LAGUNDIRA

Zerk eraman zuen Patxi Etxeberria Loiolara? Goierri aldean hain gustura eta lan polita eginez ibili, *Argian* berdin, eta zergatik utzi zuen dena Lagundian sartzeko? Jesuita izatea asmo nagusi ala misioetara joan nahi zuelako, horretarako bide modura hartu ote zuen Lagundian sartzeko erabakia? Kontua da, Loiolan hasi eta

bukatu zuela bidaia, baina bizitza osorako peregrinazio luze eta sarritan zailerako bidea zabaldu zitzaiola San Inazioren etxean.

Uztailaren 15ean sartu zen Loiolan, nahiz eta bertako paperetan bi egun geroago jasotzen den bere sarrera. Apaiz bazen ere, nobizio modura hartu zuten jesuitek. Ez zuen bake handirik izan ordea Loiolan. Izan ere, Azaña

13



1930eko uztailaren 15ean sartu zen Etxeberria San Inazioren etxean.


14

presidente zela Errepublikako agintariek bidali egin zituzten jesuitak hemendik, eta honela, 1931ko otsailaren 3an, Belgikako Tournai-ra irten behar izan zuen beste jesuita batzuekin. Oroitzapenean, agurra: «Otsailaren 2an, Ama Birjinaren Kandelari Eguna, agur esatera Loiolako abeslariak etorri zitzaizkidan». Tournai-n, Loiolan bezala, nobiziadua Aita Legarragarekin jarraitu, eta uztailaren 17an egin zituen zinitzak. Marneffe-n ere egon zen aldi batean eta laster, Txinara joateko agindua jaso zuen:

Txinako hori etorri zen goitik behera. Nik, sartu nintzenean ere, halakoxe zerbait izan zuen eta, joan egin behar diat: Txinara ere bai, noranahi. Uste dut sartu nintzenean hori esan nuela, Iberori, Legarragari, ez dakit. Gero ordeza hasi ziren ni... Ni ez nintzen abertzalea, ni ez nintzen horiek uste zuten eta esaten zuten bezala nazionalista.

Hori zioen batetik Etxeberriak, baina ikasle ohi bati beste azalpen hau ere eman zion Taiwandik 1975ean:

Ni hona etorri izana zergatik zen ongi dakizula uste dut. Lagundian sartu aurretik ere bagenekien gure izenak Burgosko gudu-gizonen lerroetan zeudela. Alegia, gaizkile bagina bezalaxe. Baita Anduan nere aurretik izan zen Arangurendar Jon ere. Ondoren, Loiolan eta gero Tournai-n gehiegi zekiten ni abertzale nintzela, eta zuri eta zure laguntxoei abestiak irakasten eta ibilia nintzela, eta euskal idazle nintzela eta al dakit nik beste zenbait ipuin!!! Eta beti gogo txarra nabaritzen nien, ni Europan bizi nendin beste jesulagunekin batean. Gainera, nik ez nekiena Goi-Goiko gure Aitak zekien: alegia, 1936garren urtean zer gertatuko zen... eta nere Aita Guztiz On Horrek ni aberritik atera ninduen... biziko banintzen.



KALIZA BELAR METAN

Kontua da, itxuraz huskeria zirudien zerbait, erabakigarri gertatu zela Etxeberria Txinara bidaltzeko:

Behin Belgikako Probintziala gu ikustera joan zen, eta orduan ongi etorriak eta egin zitzaizkion, eta azkenean gure Aitaren ereskia abestu, Martxa abestu, baina espaineraz, eta nik ez nuen ahorik zabaldu, ez dakit eta; eta norbaitek Legarragari esan hori, salatu, eta Legarragak neri kontua hartu. Ni isildu egin nintzen. Nik hari esan behar nion: baina Aita, huskeria horiekin al zabiltzate?, baina ez nion esan. Eta gainera berak ni defenditu egin behar ninduen: Utzizue, beharbada ez du jakingo eta. Nik behin baino gehiagotan esan nien: hemen behar ez banauzue, ni Txinara bidali.

Hitza hartu zioten hemen nahi ez zutenek. Oraindik beste itzuli bat emango zuen erabakiak. Aita Agirrek ahaleginak eta bi egingo zituen hemen gera zedin, baina baita erantzuna jaso ere: «Joateko, hik eskatu omen duk eta». 1933ko abuztuaren hasieran, San Estebanak Goiburuko auzoan, etxekoei agurra. Betiko agurra batzuentzat. Aita-amak ez zituen berriro ikusiko. Ezta Joxe Inixio ere, anaia bertsolaria, gerra aurreko



San Estebanen basiliza Goiburun. Horko festetan esan zien agurra etxekoei.

txapelketetan ibilia. Itxarkundia batailoiko gudari zela, Artxandan hil zuten. Patxiri ezagunen batek hil ote zuen susmoa geratu zitzaion. Izan ere, anaia zaharrenak piztutako abertzaletasuna ernea zen senitartean, eta Etxeberriatarrak seinalatuta zeuden. Patxik beti izan zuten irudipena urruti egoteagatik

salbatu zela. Sinbolo modura, jaiotetxean utzitako bere gauzak belar meta baten barrenean gordeta egon ziren gerrak iraun zuten bitartean: meza emateko kaliza eta 1933ko Olerti Eguneko lan sarituak biltzen zituen liburua. Kaliza gorrien beldurrez gordeko zuten; liburua berriz, frankisten beldurrez.



Aita-amak eta Joxe Inixio falta itzultzean. Etxeberriatarrak *Merdilegi* inguruan. Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Martin, Benita, Luzia eta Patxi. Behekoan Juan Mari, Juanito Longarte (Benitaren senarra), Erramona eta Ixabel.

TXINAN MISIOLARI

Zortziko jesuita taldea abiatu zen Txinara. Etxeberriaz gain, Barandiaran, Bolunburu, Eguren, Lazpita, Lopez, Totorika eta Gogorza. Abuztuaren 12an Marseillatik irten eta irailaren 15ean iritsi Shangaira. Lehenengo eginkizuna, bi urtez edo, hizkuntza ikastea, nolabait, belarriz.




Txinara iritsi berritan. Beheko hirukotean eskuinekoa Etxeberria, bizar eta guzti.



Etxeberriak Txinatik bidalitako argazkiak Argian.

«Gu hara joan ginenean, eskolarik ez genuen ikasteko. Gero misiolari izan nintzen eta txineraz ikasi nuen bakar-bakarrik, haiekin batean. Gero irakurtzen ere ikasi genuen pittinka, pittinka; idazten, nik behin ere ez nuen gogorik izan». Wuhu, Tatum, Hanshan, Chaohsien... horiexek hogeituroko bere ibilien oihartzuna dakarten izen exotikoak. Abenturatik ere dexente izan zuten ibiliak, arrisku latzetik hurbil. 1937an, japoniarrek

Txina hartu eta Tatum parean Urdina ibaian gora zihoazela, hantxe jo zuten tiroz Etxeberriaren etxea. Gero komunisten menpe egotea suertatu zitzaion: «Komunistekin egon nintzen ni lau urtez etxean. Etxea kartzela bihurtu zitzaidan, espetxea bezalaxe. Eta bertsoak idatzi nituen egunerokoa eginez, egunero, egunero, egunero; eta idatzi, utzi eta handik zortzi egunetara ikusi berriz eta garbi ipintzen nituen».



Txinako berri Serafin Esnaolari 1935ean idatzitako gutun honetan.

Tamalez, Etxeberriaren idatzi horiek galduta daude. Eta gainerantzean ere, bizi izan zuen isolamenduarengatik edo, ezer gutxi ezagutzen da hango bere bizitzaz. Izatekotan ere, han bertan eta jesuiten artean Euskal Herritik urundu zuten arazo berberak jasan zituela, esate baterako 1939an, hemengo gerra amaitu eta gero. Errepresalia beraz, Txina urrunean, anaia galdu izanaren mina sufritzen ari zen harentzat. Oinazea bertsoan jaulkitzen zuen:

Liskarzaleak bildu
Bein gure artean:
Anai maite il zidaten
Artxanda gañean.
Ama negarrez eta,
Uts-aundi etxean...
Emaztegaiak ez du
Aurrik magalean.



OLABIDEREN BIBLIA

Formosan (Taiwan) zegoen Patxi Etxeberria 1953az geroztik, Txiang Kai-Sheren Errepublikan, aurreko urteko abenduaren 31garrenean Mao Tse-Tungen erregimenak Txinatik uxatu zuenetik, gogoko gertatu zitzaion agindua jaso zuenean: etor zedila Euskal Herrira, Olabidek itzulitako Bibliaren inprimaketa prestatzera.

Nere eskerik ez zen izan Formosatik Euzkadira itzultze hartan. Orduan, hantxe, basarritalde polit-politean nintzen, eta 1955eko irailaren azken igandean, Loiola erki nagusiko jesulagun eskudunari idatzi nion, Olabiderena argitaratzeko zerbait egin behar zuela. Guk eskutitzak etxeko nagusiari uzten genizkion, egokieraz bidali zitzaiz. Biharamonean, nere baserri txokoan nintzen eta iluntze-iluntzean, hango gure nagusia nere bila:

– Baina, zer zabilta? Eta, urrutizkinez deia neretzat Euzkadira itzuli nendin, Olabiderena argitaratzeko.

Horrela, nere bila zebiltzala jakiteak harritu ninduen. Baina, Erromako Jesulagunen Nagusienaren agindua zela... eta, nik isilik egon behar.

Honela bada, 1956 eta 1959 artean Europan egon zen Etxeberria, hamar hilabetez Erroman eta gainerantzekoa Bilboko Indautxun, Raimundo Olabide arabarrak 1942an hil zenean azken



Wuhuko misioko ongileei eskainitako egutegia, 1934koa.



Etxeberriak argitaratzeko prestatutako Olabideren *Itun Zaar eta Berria*.

20



Arreba Benitarekin eta auzoko batzuekin. Olabideren lana amaitu eta Formosara itzuli zen berriro.



Hsinpu, 1969ko apirilaren 20a.



Etxeberria eta Arrupe argazki berberean, beste jesuita batzuekin, 1971ko apirilaren 16an.

ukituaren faltan utzitako itzulpena osatzen. 1958an ikusi zuen argia *Itun Zaar eta Berriak*, garai hartako euskal liburugintza urrian mugarria ezarriz. Etxeberriak bertso batzuen bidez jarri zuen bere sinadura: «Argitalpena zuzen-bearrez/ibili da andoaindarra;/Aren izena Etxeberria...».

58 urterekin eta misiotan hogeitau urte egina, ez zuen garai txarra Euskal Herrian geratzeko. Baina berriro ere

Formosarako bidea hartu zuen Etxeberriak, eta bertan beste hamazazpi urte egin. Handik Filipinetara bidali zuten, Iloilora, 1975ean. Urte horretan bere lagun batek, Bixente Olano andoaindarrak, Jesusen Konpainiako Jeneral zen Aita Arruperi Euskal Herrira ekartzeko eskatu zion, baina baita ezezkoa jaso ere, Etxeberriaren misiozaletasuna aitzaki hartuta. 87 urte beteak zituen Euskal Herrira itzuli zenerako.

21



Ondoan daukan moja lehengusina du, Kontxesi Tolosa, misiolaria hura ere.



87 urtera arte, misiolaritzan.

MALKOEN KOLEOREA

Harrigarria gertatzen da zenbateraino eutsi zion Patxi Etxeberriak Euskal Herriarekiko loturari hain luzaroan eta hain urruti bizi izanez. Hemengo berriak jasotzeko irrikitan egoten zen, eta aldizkarien bidez lortzen zuen hori. Baina, batez ere, gutunen bitartez jarraitzen zituen hurbiletik aberriaren eta aberkideen gorabeherak. Ezin konturik atera zenbat eskutitz jaso zituen eta zenbat idatzi zituen. Lagin modura balio beza datu honek: berak utzitako paperen artean, 1960-1962 urteetan idatzitako gutunekin, besterik gabe, hiru liburuki daude. Horien artean honako hauei

zuzenduak: Andoni Urrestarazu *Umandi*, Joxemiel Barandiaran, Jokin Zaitegi, Manuel Lekuona, Norbert Tauer, Andima Ibiñagabeitia, Gotzon Garate, Patxi Altuna, Ambrosio Zatarain, Manu Oñatibia, Antonio Zavala... Hori, ezagunak aipatzearen, izan ere, senitarte eta lagun zaharrek ere etenik gabeko harremana izan zuen postaren bitartez. Etxetik arreba gazteenak, Benitak, idazten zion, ama bizi izan zen bitartean haren aginduz. Horrela iritsi zitzaion amaren esaera hunkigarri hau: «Prantxixku, nere malkoek kolorerik balute, haiekintxe idatziko nuke hau».



Filipinetako alkandoraz, 1980an, Setien eta Gorospe hernaniarrekin.

Bera ez zen batere negarti agertzen gutunetan bere buruaz mintzo zenean. Izatekotan, bizi zen tokietako pobreziak edo burubide eskasak beluntzen zuen. Eskutitzak kronika bihurtzen dira sarritan, inguruan dituen kultura eta ohitura ezberdinen berriemaile. Ezagutu zituen herrien artean, Filipinetako tayeldarrak aipatzen ditu gehienbat. Askotan, berak ateratako argazkiez hornitzen ditu gutunak, eta horrelakoetan, erreportai tankera hartzen dute.

Azkenengo urteetan, Filipinetan zegoela, handik pasatako euskaldunen aztarna bila hasi eta euskal abizenen eta antzekoen bilduma osatu zuen.




Itzuleran, atsegin ez zitzaion giroa aurkitu zuen Etxeberriak Euskal Herrian.

LOIOLAN BERRIRO

«Urte asko dituenarentzat hemen toki egokirik ez dutela eta, hortxe, nere jaiot-lurrean hobeto izan ote nindekeen...». Horrela idazten du lloilotik 1987ko abenduaren hasieran. Hilaren erdirako, Loiolan zen. Apaltasun osoz, baina kexati: «Loiolara ekarri naute. Etortzerik ez nuen eskatu. Berrogeita hamalau urte haundi erbestean eman ondoren... lehengoa ez da Euskadi. Gizartea erabat aldatu da. Hau ez da nik utzi nuen Euskal Herria, ez burubidez, ez hizkuntzaz».

Garbizaletasunari eusten zion Etxeberriak, eta ez zuen h-rik maite. Hizkuntza kontutan, nahiz gizarte arazoetan oro har, berak nahi ez bezalako joerak zeuden laurogeiko hamarkadan. Hain berea zuen jenio bizi harekin, ez zuen amore ematen. Hala ere, ez zegoen Santutegi zuloan geratzekotan. Lagun zaharrak bisitatzeaz gain, euskal jai eta



24

ospakizunetara joateko aukeraz baliatu zen bere azken bi urteetan: Herri Urrats Senperen, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatutako Eguna Lizartzan, Zumalakarregi pastoralaren emankizuna Ormaiztegin... Kanpoko berri jakin eta idazten ere azken ordura arte segi zuen. 1989ko azaroaren 16an, Ellakuria jesulaguna eta beste zazpi lagun hil zituzteneko sarraskiaren berri jaso eta bertsoan goralduko ditu. Hamabost egunera, Tomas Garbizu musikagile lezotarraren

heriotza izango du aitzaki gogoetarako:

Eguna bezain laister
Urteak amaitu:
Zabalik ataria
Andik nai det sartu.
Goibelaldi txatxuak
Betiko baztatu...
Biotz barrengo labe
Ez det nai banatu.

Papera idazkamakinatik atera gabe zeukan artean, heriotzak lo harrapatu zuenean.



Musikazaletasuna, bizitza osoan zehar.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Patxi Etxeberriaren senitartekoak.*
- *Mikel Atxaga.*
- *Xabier Goñi.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1626-3 (Obra osoa) 84-457-1630-1
L.G.:	BI-2954-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística